

# baldeixe

2005eko URTARRILA,  
129. ZENB. DOHANIK

## Laura eta Andoniren Basetxea



## HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

### Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

### Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

### Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

### Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Iurre Altzibar

### Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,

Joanito Dorronsoro, Haize

Galarraga, Xabier Aranguren,

Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,

Izaga Garzia, Beñat Fernandez de

Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon

Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur

Taldea, Ander Hormazuri, Aitor

Manterola, Imanol Garate,

Joseba Esnal

### Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

### Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

### Publizitatea

943 86 15 45 tel.

### Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

### Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

**Baleikek** ez du bere gain

hartzen aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien erantzukizunik.

## aurkibidea

librean .....	4
puntocom .....	7
ze berri? <b>saihesbideko lanak uda ondoren</b> .....	8
ze berri? <b>bertso astea</b> .....	10
elkarrizketa <b>laura eizagirre eta andoni manterola</b> ..	13
ibilbidea <b>azkoitik elgoibarrera</b> .....	18
kirolak <b>arraun denboraldi berria</b> .....	20
orain hamar urte .....	23
gure zumai zarra <b>ixabel grazia ezeiza</b> .....	24
kultura .....	28
<b>arte zine forum</b>	
agenda .....	30



kirola  
**luis mari goikoetxea**  
**'goiko'**

**“Ezin da aurretik dena esan, baina uste dugu  
urte polita egingo dugula.”**

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Zumaiako Udala**



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**kutxa**

gizarte ekintza



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



**GIPUZKOAKO**  
FORU ALDUNDIA

# Haurak eta poesia

Hurrek, mozkorrek eta zoroek soilik esaten omen dute egia, eta, nire koadrilakoek kontrakoa esan arren, gure etxean mozkorrik eta zororik ez dugunez, haur bat —nire semea— izan da, neologismo eta guzti, azken zutabeko zalantza existentziala (bai, badakizue, idolo ala lapajale?) argitu didana: aitaxo, getarraina (nor naiz, ba, ni, haur bati kontra egiteko?).

Aurreko zutabean, halaber, jokutxo bat proposatzen nizuen: euskaraz argitaratutako pasarte, esaldi edo aipu bat idatziko nuela, eta, asmatzaileari kafetxo bat ordainduko niola. Egia esan, harrিতa geratu naiz zumaiarrek, literaturari dagokionez, duzuen jakintza handiarekin: ia sosik gabe geratu naiz hainbeste kafe ordaindu ondoren. Askok eta askok asmatu duzue *Badut problema bat irtenbide bakoitzerako* esaldiaren egilea Xabier Montoia dela, eta esaldi horrekin eman ziola amaiera Anfetamiña poesia liburu ederrari.

Kalean eskean hasi beharraren arriskua ikusita, taktikaz aldatzea pentsatu dut, eta, hemendik aurrera, nik emango ditut egindako aipuei buruzko azalpen guztiak. Gaurko aipamena Juan Ramon Madariagak idatzitako Izozmendiak liburutik hartu dut. Ziur nago, batek baino

gehiagok nik izan nituen antzeko sentipenak izango dituzuela poema hau irakurtzean, eta liburua osorik irakurtzeko gogoa piztuko zaizuela (merezi du!!!); batik bat, gabonak pasa berriak ditugun honetan, eta, gure oparotasunaren ifrentzuan, tsunamiek hondatutako hainbat eta hainbat bizitza begien aurrean ikusi ditugunean. Poemak *Haur bat segundoro* izena du:



Iñigo Azkue Leunda

Kalefazioa amaitu da.  
Eta ez duzu konpondu behar, aita?  
Amaitu da, ez dago  
beste gauza asko ez dauden bezala.  
Zinbaweko ume askok ez dute urik.  
Birmanikoek ez dute zapatarik  
Haitikoek ez dute esnea probatu.  
Afganistangoek belarra jaten dute  
neguan.  
Siberiakoek behatzak dituzte izoztuta.

Patagoniakoek ez dute betaurrekorik eta  
itsu gelditzen ari dira.  
Mongoliakoek ez dute itsasoa inoiz  
ikusiko.  
Indiakoek ez dute guraso hilak erretzeko  
adina egurrik.  
Munduko ume askok ez dute ezer,  
eta beste asko, honezkerok, ez daude  
beste gauza asko ez dauden bezala.  
Eta ez duzu konpondu behar, aita?



## Gomezago gripiak jota

Ba ote batenbat sano? Inor libratu al da? Gripia pasa eztunik ba al dao?

Motellak! Halako gizona ta ezertako gauza ez! Hauetxuk eztulak eta hezurretako minak; hau dek barruak hustu biharra; guaintxe "trentinuebetik" gorako kalentura, guaintxe hoztuta.

Astebete pasa diat ohitik jaikitzeo gauza enitzala. Baña okerro eon txukenak e ezautze izkiat. Kuadrilan, Antonio ez, beste danok harrapatu diau gripia; Joxe Mari urgentzita re eman tzian alabak bost egunian kalentura jetxi ezinda ibili ta geo.

Okerrena ordia zea dek, geyenok ditxosozko bakuna o dana dala-ko horren zaztaa jasotakuak ginala. Marka dek geo, sekula gripeik pasa gabekuak bakuna deitze yoen hori hartu ta jesukriston gripia jota ibli gaituk. Bela sartuko zie orratza hurrenguan!

Ba, gripiak jota ibilita re ez pentsa geo etxe zuluhan sartuta eon geanik; haizia hartzia ona dala esate ezte ba, ta non estalapan baño haize hobia?

Gabon kontuekin ibili gaituk gora ta behera estalapan;

- Naekena esango ek Damian, baña lasaitasun earra zioz Erriberan musika eztaonetik- Joxe Marik adarra jo nahian

- Ze esateek geo, bigarren taberna zulotik ertetzeako katxaperuak e etxuk eta somatzen- Damianek

- Ta laugarreneako ikusi re gutxi!- Antoniok- Baña arrazoi zikak Joxe Marik. Izan e ze musika zian haxek.

- Batzuk behintzat beti kontra eongo zeate- Manuelek- Musika daonian daolako ta eztaonian eztaolako, beti protestan!

Baña beroaldi haundiyena erregien ta Olentzeron bueltan sortu huan; gabon bezpera eo izango huan Martin luxia bero bero inda azaldu zanekua

-Nazka nazka in nauk guaintxe bateko errege ta besteko olentzerokin; esan etzie ba bilobek Olentzeron erregaluz gain erregien-

tzat zapata re jarriko duela gurian! Hori bakarrik falta nian, nahiko buru hauste ez erregalo bat iteko ta guain zea, erregien-tzat beste bat!

- Okerrena eztek hori! Batetik erregiak eta bestetik Olentzero, eztek besteik aitzen, ta Gomezago ze? Non laga die Gomezago?, batenbat akorratze al da arrantzale xelebrea harekin?- Damianek, ia bere onetik ateata.

-Arrazoi guztiya dakak Damian-Neuk- Seguru nitxiok hamabost urtetik beherako mutil eta neska koskorrek hobeto ezautukoxkiela bizartzuri ta Papanoel Gomezago baño.

-Trixtia dek baño egiya. Hi, ta geuk iten bayu, ze?- Damianek

-Ze in bihar diau ba?- Joxe Marik

-Zea, Gomezagon eskia; izaria besteik eztaiu bihar. Gaña kantuan gu bezela gutxi iteye!- Antoniok

-Neuk ekarriko diat izara txuriya- Joxe Marik

Ta hala geatu gittuan hamabost gizonoko kuadrila gabon arratse-ako estalapan, zazpiretan puntuan.

Eguna alleatu zanian lau lagun azaldu gittuan, hiru eztulka; Antonio huan fresko eta kanturako gogoz zitxion bakarra. Olentzero eo erregiak enteetuko hittuan ba kompetenziya itea ginazela, ta gripia bialdu zitxiun kaudrila guztira. Aurten lortu die Gomezagon eskia ez itia baña datorren urtian bai, datorren urtian Gomezago ibiliko diau kalian gora ta behera, tabernaz taberna. Hurrenguan kontu geyo.



Joxe Luis

## Atxikipen askea

Azken aldi modan dagoen hitza da atxikipen askearena, esan beharrik ez dago zergatik. Herri bakoitzaren eskubidea omen da kontsulta publikoa egitea, herriak erabaki behar du nolako loturak nahi dituen ondokoekin, e.a...

Kontu honen abstrakzio simple bat eginez zera etorri zait burura: Possible ote da Oikia Zumaiarekiko atxikipen askea duen herri bat izatea? Oikia eta Zumaiaren artean dagoen gatazka amaitzeko era baketsu eta demokratiko bat izan daiteke.

Oso erraza izango zen prozesua:

- 1.- Oikiarrok plan bat adostuko genuke non Zumaiarekin izan nahi dugun harremana zehaztuko litzateken.
- 2.- Zumaiari aurkeztu plana eta Zumaiak Oikiaren borondatea onartu beharko luke.

- 3.- Oikiarrak (eta soilik oikiarrak) azken erreferendum bat egingo lukete Zumaiarekiko atxikipen askeko herria izan nahi duten berresteko.

Prozesu berdina jarrai lezakete Narrondo, Artadi eta herri izaera duten gainontzeko auzoek ere. Horrela gutaz soilik hauteskunde bezperatik oroitzea sahiestuko litzateke, geure autonomia izango genuke kasurik egiten ez diguten ekimenak aurrera eramateko, e.a...

Agian baleike.com-eko inkestarako hurrengo galdera izan liteke.



## LIBREPENSADOREAK

Azkeneko Baleiken Migel Aperribaik Librepensadoreei buruz idatzi zuen eta galdera batzuekin bukatu zuen artikulua: "Zenbat ziren? Ez al zuten inongo arrastorik utzi?".

Nik ez dakit gauza handirik gaiari buruz, baina gure amama Maria "Silbestrak" behin baino gehiagotan hitz egiten zigun librepensadoreei eta Casino Liberalen zegoen giroari buruz. Berak han egin zuen lan gaztetan zerbitzari, eta harreman handia zuen Casinoko taberna zeramatenekin; horregatik, hark emandako informazioak balio handikoak iruditzen zaizkit Zumaiako XX. mende hasierako giroa ezagutzeko.

Librepensadoreak XIX. mende bukaran eta XX. mende hasieran jardun zuten Espainiako intelektual liberal eta erregenerazionistei deitzen zitzairen, hitzak esanahi zabalagoa izan arren. Talde hau Madrileko "Institucion libre de enseña" izeneko erakundearen inguruan biltzen zen, helburu simple bezain zaila aurrera eramaten ahalegintzeko: kulturalki atzeratuta zegoen estatu baten hezkuntza sisteman eragitea.

Helburu hori aurrera eramateko, ia osorik Elizaren esku zegoen heziketa sistema aldatu nahi zuten eta hezkuntza publikoa eta laikoaren aldeko apustua egin zuten behin eta berriz.

Idea horiek oso zabaldua zeuden aspalditik Espainiako politikan nagusi zen talde liberaleko joera batzuen barruan, XIX. mende bukaerako Espainia bi lerro ideologikoren artean zatituta baitzegoen: kontserbatzaileak eta liberalak. Euskal

Herrian egoera ez zen berdin-berdina eta talde kontserbatzaileak baino indar handiago zuen karlismoak.

Bai liberalismoaren barruan, bai karlismoaren barruan joera eta sentsibilitate ezberdinak zeuden eta liberalen artean moderatu monarkikoak, errepublikarrak, foruzaleak, eta abar zeuden. Talde liberalen ezaugarria interes ekonomiko liberalen alde egitea zen, eta estatua Elizaren



boteretik askatzea. Hortik etorriko da hurrengo urteetan librepensadoreen eta liberalen arteko interesek bat egitea.

Zumaia, eta orokorrean Gipuzkoako kosta guztia, liberalen esku zegoen, nagusitasun politikoa eta ekonomikoa zutelako, nahiz eta gehiengoak karlista izan. Lagun talde handien modura funtzionatzen zuten ekonomia eta politika gaietan. Biltzeko tokiak Casino Liberalak ziren; elkarte horietan gauza asko egiten ziren: bilera politikoak, dantzaldiak, antzerkiak, tertuliak... Taberna zutenez, elkartzeko tokiak ziren.

ismael manterola ispizua

Zumaiako Casinoa gaur egun Pulpo elkarte dagoen etxean zegoen eta denbora luzez Gurrutxaga familiaren kontrolpean egon zen. Horiek Fausto Zarauzi laga zioten eta, gure amama bertan lanean ibili zenean, haren familiak eramaten zuen. Toki aproposa zen librepensadoreen tertuliak egiteko, batez ere XX. mendean hasieran Zumaiara etortzen hasi ziren intelektual madrildarrentzat. Ortega y Gasset da adibiderik ezagunena, gure amamaren hitzetan: "Librepensadorea zuan, eleiza juten ez zirenetakua, baina gizon ona". Ortegak aurreko urteetako pentsamendu liberala jaso zuen eta kulturari ikusi zuen Espainia aldatzeko itxaropena eta intelektualei aldaketa horien ardura. Pentsalariarekin batera, Zuloaga pintorea ere Casino Liberaleko argazkietan azaltzen da. Hala ere, Francisco Larrañaga "Pako Zarra" izan zen Casinoko presidentea 1902tik aurrera Eusebio Gurrutxaga hil ondoren.

Gerra Zibila hasi arte, liberalismoa eta librepentsalariak nahiko estu lotuta egon ziren, nahiz eta gerrak dena aldatu eta liberalen munduan ere zatiketak eta ezinikusiak sortu, errepublikazaleen eta eskuineko liberalismo kontserbadorearen artean, batez ere. Gerra Zibilaren garailek Casino Liberalaren eta aske pentsatzeko aukeren atea itxi zuten. Baina Casinoren eta librepensadoreen arrastoa ezin da ezkatu Zumaiako XX. mende hasierako politikatik eta hurrengo urteetan bizi izan ziren hainbat eta hainbat familia errepublikarren oroitzapenetatik.

### ARGIDENTAL Hortz klinika

- \* Odontologia orokorra
- \* Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- \* Endodontzia
- \* Inplantologia

- \* Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- \* Protesia
- \* Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

**Larunbatetan egun osoa zabalik**

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

EGUZKI  
PUB  
Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

# 'estropada' bizia inkestaren atalean

**B**izia izan da inkestaren atalean abenduan bizi izan den estropada. Gabonetako argien inguruan berdintasuna izan da asko alaitzen zute-  
la uste zutenen eta batere gustatzen ez zitzaiea zio-  
tenen artean. Azkenenean, ezezkoak irabazi du  
gutxiatik izan bada ere. Iritzien arloan, berriz, Izus-  
tari alderdi politikoak etxebizitzaren inguruan hartu-  
tako erabaki batek duda bat baino gehiago sorrara-  
zi du bisitarien artean.

## INKESTA

Gabonetako argiak jarri dituzte gure kaleetan. Zer iruditzen?

Asko alaitzen dute		%41.67
Berdin zait		%13.33
Ez zaizkit gustatzen		%45.00

Jasotako botoak: 60

## IRITZI BATZUK

### Paoletik Izustarrira

NORRI: kazka NOIZ: 2004/12/17-11:47 GAIA: Giertea

Udalaren Paola aldizkarian eta Izustarraren berri-paperean argitaratutako gainean, hainbat galdera

Atzo jaso genituen etxeko buzolan Zumaiako Paola eta Izustarraren berri-papera. Aparteko albiterik aukitzeko esperantziak gabe gainbegiratzen ditut normalean, baina onartu behar dut atzoko irakurketa zaiosa emankorra izan zela, erantzunik gabeko galderak eragin baitzitukidan. Informazioa bai, baina argibiderik ez.

- Babes ofizialeko etxebizitzak direla eta:** Paolak dio Torreagak bi urte bainu bertatik alde egiteko konpromisoa hartu duela. Hori lorpena da, Torreagak asko kutsatzen duela oso ondo baitakigu gertu bizi garenok. Baina bekainak tente jarri ditzkidan beste informazio bat dator honi lobuta: Torreagak utziko duen solairuan 210 etxebizitza egingo direla, eta, Torreagak hala eskatuta, denak merkatu librekoak izango direla. Antza denez, lekuz aldatzeak kostu handia zuposatzen du. Legez han egin beharko liratekeen babes ofizialeko etxebizitzak (40 inguru direla uste dut) Puntanuetan egitea eskatu du. Udalbatzak onartu egin du eskaera, EAJ, PSE-EE eta Izustarraren aldeko botoekin.
- Izustarraren berri-papera:** Izustarrak salatzan du Udal Gobernuaren jokararekin Puntanuetan ghetto bat bihurtzeko amarkua dagoela. Kontratatutako tratu modukoak egin omen du: Legeak agintzen dituen babes ofizialeko etxebizitzak dagokien lekuan egin beharrean (Amalako Plazan, Karmelo Unanuen...) Puntanuetan egitea onartu omen du Udalak. Horela, kontratatutako sekulako negozioa egiteko modua dute, etxebizitza libre horiek oso garesti zalduko dituztelako. Zer irabazten du Udalak? Izustarraren argitalpenak dienez, komentua erosi ahal izan dute, frontoi berria egingo da, ambulatorioa, Oskilako eskola...

### Galderak

- Udaltzako bulegoetan mamitzen dena bertatik bertara bizi ez dugunentzat: Nola gauzatzen dira horrelako tratuak? Kontratatutako esaten du: "dena libre uzten badiñak, komentua erosteko dirua emango diat", edo, "frontoi berria egingo diat"? Hori legezkoa al da? Txarra al da?
- Beste argibiderik eman bitartean, kontraesan izugarria ikusten dut Izustarraren jokararen: Amalako Plazako babes ofizialeko etxebizitzak Puntanuetara bidaltzea salagarria da, baina Torreagakok bidaltzea ez. Amazioa zein da, Torreaga handik kentzea komentua erostea edo frontoi berria egitea baino garrantzitsuagoa dela? Ghettoa berdin bultzatzen da horrela...
- Ghettoaz: Iruditzen zait hitzak kontu handiz erabili behar direla, ere gehiago politikoen artean. Jaitzera doan auzo berri bati, hasieratik, ghetto etiketa jartzea betirako markatuta utzea da. Zumai, zorienez, ez da nazien garaio Varsovia edo Berlin, eta ez zait iruditzen han biziko garenok ghetto batean sartuko gaitezuten sententziarik dugunik, orainoz behintzat. Egia da Zumaiako zenbait auzok bazterketa sententziario hori bizi izan dutela eta bizi dutela (Gautxeri, Harondo...), baina hori Udalak hala nahi izan duelako da, marginatu egin dituztelako. Puntanuetan halakorik gertatzen bada, orduan zalatuko dugu. Bertatik, zuek erabiltzeko idelari eusten badiogu, Zumaiaren erdigunea (?) ere Ghetto bihurtuko da laster, aberatsen ghettoa. Bistan da "zubia baten bestaldean" ari dela hasten hema, urte gutxiaren buruan etxebizitza asko egin direla, eta herriko zerbitzu gehienak bertara eraman direla: Eskola, kirol instalazioak (laster frontoia), laster ambulatorioa, Eroski... Herriaren argitunea non dagoen biplanteatzen hasi beharko genuke...

**Eskaera:** "Badakit Izustarrak zinegotzian irakurtzen dutela [www.baleka.com](http://www.baleka.com), eta nire zalantzak argitzeko eskatuko nieke." -Ez dakit Udal Gobernuak kideek irakurtzen duten (irakurri beharko lukete), baina haien ere argibideak eskatzen dizkiet.

**Oharra gure politikoei:** Ondo dago, maiztasun jakin batekin eta argitalpen baten bidez, herriarroi informazioa helarazi nahia. Politikoen betebeharrerako bat da. Baina ahalik eta zintzoen jokatzeko saiatu zaitzete. Onak izan...

**Alberdi**  
Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155

**GANBARA**



Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

**Zumai Hotel**

Alai Auzategia  
20750 Zumai (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64





## Saihesbidea: oraingoan bai?

Badirudi hainbat hauteskunde kanpainatan agindutako Zumaiako saihsbidea egia bihurtuko dela urte gutxi barru, errepide berria eraikitzen hasiko baita Gipuzkoako Foru Aldundia uda ondoren. Lanek 14,4 milioi euroko aurrekontua izango dute eta 2007 urtearen hasiera aldera amaituta egotea espero da.

2004ko Gipuzkoako azken aldizkari ofizialean, Foru Aldundiaren 2005eko aurrekontuak argitaratu ziren. Bertan, besteak beste, Zumaiako saihsbidea egiteko, konpromiso kreditu moduan bi partida handi agertzen dira: 2006 urterako 6.000.000 euro eta 2007 urterako 7.457.000 euro.

Saihsbideak 1.500 metro inguru izango ditu, eta Txikiardi eta Urola zeharkatzen duen zubia lotuko ditu. Tartean bi biribilgune edo rotonda egingo dira (Txikiardin eta Beduako gainean, Kantea inguruan) eta lotura zabal eta korapilotsu bat Itsas kiroldegi alboan.

Proiektuak dioenez, hiru epetan banatu dituzte lanak. Lehenik, Txikiardiko lotura egingo dute: biribilgunea. Ondoren, Beduako gainean egingo duten biribilgune berrirako zatia eraikiko dute eta, azkenik, Beduako biribilgunetik Zumaiako herrigunera arteko zatia. Azken hau, Urola ibaiaren loturaraino iritsiko da.

Lanak hiru epetan banatzeaz gain, epe eta zati bakoitzean egin beharrekoa ere zehaztuta dute dagoeneko. Saihsbidea gaur egun Txikiardin GI-3760 errepidearen elkargunea dagoen inguruan hasiko da. Zonalde horretan, Txikiardiko elkargune berria izenarekin definitu dutena eraikiko dute. Hiru besoko biribilgunea izango ditu elkarguneak.


Hortik aurrera eraikiko dute saihsbidearen lehen zatia, GI-3760 errepidearen zabaldegian barrena, Beduarako bidean trenbidearen gainetik pasatzen den zubiaren ondoan eraikiko duten bigarren biribilguneraino. Euskotrenen linearen ibilbidetik hurbil eraikiko



*Era guztietako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko argietan*

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23  
Tel. mugikorra: 608 143409



**Emilio Perez**  
Elektrigavio, zeharkatu eta instalazio  
elektrikoaren salmenta eta konponketa

**ADI**

BASADI 28  
20750 ZUMAILA  
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157  
E-mail: adia@euskalnet.net



dute bigarren zatia, eta linea gainetik igaroko da saihebidia. Kilometrotik gora izango duen zati hau Urola inguruko loturaraino iritsiko da.

Laster hasiko dira inguruko lursailen desjabetzeak. Aldundikoak lurjabeekin laster bilduko dira diru kopuruak zehazteko. Honekin batera, lanak eslei-

tzeko lehiaketaren deialdia egingo du Foru Aldundiko errepide sailak.

### Aparkalekuak bide zaharrea

Saihebidia egin ondoren, une hone-tan Zumaia zeharkatzen duen bidea herriko jabegora pasa liteke. Luxiano Pagaegi Udal arkitektoak aipatu digu-

nez, Estazioa eta Txikiardi arteko bidea asfaltatu ondoren, ehun aparkaleku plaza egiteko asmoa du Udalak. Ez da asko lasaituko herriak pairatzen duen aparkaleku gabezia, kontutan hartu behar baita Itsaskiroldegi albo-ko aparkagunea desagertu egingo dela saihebidia egiten denean.

dekorazioa

# ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUTZ  
(GIPUZKOA)  
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
...mantenimendua  
Nekazaritza zerbitzuak  
Kirol zelaien mantenimendua  
Txostenak ...  
aholkularitza teknikoak.  
Balorazioak

**TXINGURRI**  
Koop. Elk.  
Nekazaritza Injineru Teknikoak

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309

**ALBAITARITZA KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

**-ALBAITARIAK-**  
astegunetan: 16:30-20:00  
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

Karmengo Arma, 14  
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés  
francés  
euskara  
inglantzi  
español  
catalonian  
suomi basc  
català finnois  
francés anglais  
catalán française  
castellano finnish  
inglés baski catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

**ALGORRI TABERNA**  
ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543



## Bertsoz txispatuta poteoan

Urtarrilaren 2ko poteoa izan zen aurtengo Bertso asteko lehenbiziko ekitaldia eta jende asko ibili zen Mikel Mendizabal eta Jexus mari Irazuren atzetik, tabernaz taberna, Billabierko Josu eta Jagoba trikitilariak lagunduta. Erribera kaleko 10 taberna bisitatu zituzten eta saio oso politak egin zituzten, tarteka Gijarro anaiek lagunduta. Esate baterako, Gabonetako jatorduez eta angulen prezioaz ari zirela, ateraldi bikaina izan zuen Irazuk, Urolako angula galvanizatuak aipatu zituenean.



Jexus Mari Irazu, Mikel Mendizabal eta Unai Gijarro bertso-poteoan

## Xabier Azkue txapeldun bertsopaperetan

Joanito Dorronsoro VII. bertsopaper lehiaketako aurtengo sari nagusia Xabier Azkuek irabazi du eta ordainetan txapela, oroigarria eta 250 \_ jaso ditu. Bigarren saria Maddi Gallastegik lortu du, iaz gaztetxoan mailan txapela lortu zuenak, eta oraingoan 150 \_ eta oroigarria jaso ditu. Beste sari berezi bat ere egon da aurrean eta Igor Albizu izan da oparia eta 100 \_ ko txeketa eskuratu dituena. Guztira 11 lan aurkeztu dira lehiaketan eta gaia "Etxebizitza: etxea, bizitza..." izan da. Epaile lanetan, berriz, Jon Maia eta Manu Garate aritu dira eta oro har egon den maila ona azpimarratu dute. Urtero bezala, apirilerako aterako da bertsopaper guztiak biltzen dituen liburuxka.

## Saio bizia eta polita Unai Gijarroren debutean



Estitxu Eizagirre eta Miren Artetxe bertsoan

Urtarrilaren 8an Aita Mari zinemara gerturatu ziren 100 lagunek ordu eta erdi atsegina igarotzeko modua izan zuten, Jon Maia gidari zutela, 6 bertsolari gazteak oso ondo aritu zirelako. Zumaiaz, nor bere herriaz, norberaz, joandako urteaz, datorrenari buruz... hainbat gai jorratu zituzten eta azkenekoa izan zen beharbada politena, talde batean bi neskak (Estitxu Eizagirre eta

Miren Artetxe) eta bestean 4 mutilak (Etxahun Lekue, Xabi Paia, Jon Martin eta Unai Gijarro) bildu zituen; lehenengo biak astea norberaren etxean ematen dutenak ziren eta gainerako 4ak amaren etxearen epelean bizi zirenak (benetan hala da) eta talde bakoitzak bere aukeraren abantailak abestu zituen. Unai Gijarroren lehen plaza ofiziala izan zen eta besteen ondoan oso ondo moldatu zen. Saioaren atarian banatu ziren bertsopaperetako sariak eta saritutako zenbait bertso ere kantatu zituzten.

**Kresala**  
— edergintza —  
Amaiko Plaza  
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

*D'Ana*  
Fleapaindegia  
Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

**EGOKI**  
Erloju eta bitxidenda  
E. Gurrutxaga plazan

# ETXEBIZITZA: ETXEA, BIZITZA...

Hara Xabier Azkueren bertsoetako batzuk, Joana Bixenta Olaberren doinuan abestekoak. Sorta osoa [www.baleike.com](http://www.baleike.com) gunean ikus dezakezu.



Xabier Azkue, bertso paper lehiaketako irabazlea

Amak esan dit "Alde hemendik!  
Hogeita hamar urte ettuk alperrik"  
Ni zuekin pozik nago, Ama  
kanpoan beltza da panorama  
"Saiatu hadi!  
Nahiz eta egon traba ugari  
moldatuko haiz, animo Xabi!"

Itxuraz uso, etxe ehiztari  
hortik dabilzan otsoekin adi!  
Kanpoan da hainbeste pajaro  
zein baino zein diruzaleago!  
Maldizioa!  
Modan da espekulazioa  
Sartzen hasi zait depresioa

Alde zaharreko etxe hutsean  
okela gutxitxo dago eltzean  
Bosgarrena igogailu gabe  
Bostehun euro garesti bada're  
Pixu xixtrina!  
Xagu-zulo eta ittokina  
Zuretzat gorde, marisorgina!!

Zer eskatzen du gure herriak?  
Toki politean etxe berriak!  
Ordainduz gero laurogei kilo  
Ezingo nuke lasai egin lo  
Ze zoramena!  
Gazteak pa(g)atu ezin duena  
eraikitzea ez al da pena?

Eskatuz gero bertan laguntza  
jabe berria ordutik da Kutxa  
astun bihurtzen da hipoteka  
hausten da bizitzaren oreka  
Zenbat bizkarroi  
zupaka behartsu gabiltzanoi  
ez dut bizi nahi inoren morroi!

Nolako neska, halako etxea  
Komeni zait niri ona hartzea  
Proiektu hortan biok bazkide  
nirea zure zurea nire  
Sinistu zazu  
Plana egiteko prest naukazu  
Nire laguna ote zara zu?

GOIKO BODEGOIA  
"Betiko Goiko"  
Erribera 9 - 20750 ZUMAIA • Tel. 943 861191

ILEAPAINDEGIA  
FRUITZ  
San Telmo, 12  
Tel. 943 860760

**Lekin**  
Energia eta Informatika  
Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet  
DIGITAL+ CANAL+

OPTIKA ZUMAIA  
Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A

Arantza Aramendi  
**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA  
Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

# Bigarren eskuko liburu eta disko azoka otsailean

Baleike Kultur Elkartek antolatuta, otsailaren 12 eta 13ko asteburuan bigarren eskuko liburu eta disko azoka egingo da Zumaian. Azoka honek bi helburu ditu. Alde batetik kultur mugimendu txiki bat sortzea nahi da azokaren inguruan, guztiok etxean ditugun liburu, disko, komiki eta pelikula zaharrak salduz. Bestetik, bildutako diruarekin Asiako itsasikarak kalte-tutakoei laguntza bidali nahi da.

Azoka otsailaren 12 eta 13an izango da Oxford aretoan eta guztion ekarpenekin nahi da osatu. Baleike Kultur Elkartek antolatu du, baina guztiok etxean ditugun liburu, disko, komiki eta pelikula zaharrak saltzea du helburu. Material hori edozein hizkuntzatan egon daiteke, hau da, ez da derrigorrezkoa euskaraz izatea.

Etxean halako liburu edo diskoak izan eta azokan parte hartu nahi izanez gero, eraman itzazue hilaren amaiera baino lehen Gernika parkean dagoen turismo bulegora.

Herritarren laguntzaz gain, euskal argitaletxeekin ere harremanetan jarri gara biltegitratuta duten material zaharra eskatzeko. Horietako batzuek dagoeneko baiezkua eman dute.

## Aspaldiko asmoa

Honelako azoka bat antolatzea intergarria izan zitekeela eta, aspalditik genuen Baleikekook egitasmoa abian jartzeko intenzioa. Hasiera batean Saharako errefuxiatuei bidali behar zitzaien salmentekin ateratzen zen dirua, baina Asian gertatutako itsasikararen ondorioz izandako kaltetuek



behar handiagoa izan dezaketela eta, bertara bideratuko da dirua.

Espero dugu erantzun ona izatea, eta bigarren eskuko produktuen azoka urtero antolatzen jarraitzea.

# Karidadeko Bentaren diskoen irabazleak.

- Jesus Unanue
- Xabier Solozabal
- Arantxa Urkidi
- Xanti Osa
- Osa Alzibar



B. Etxegarai 2, behea  
943 86 27 14

Y  
i  
N



Y  
A  
Z  
G

GAZTEEN ERAOPIA

Laura Eizagirre eta Andoni Manterola. Basetxea K saioko lehiakidean

# “programa ez da guztiz garbia izan”

Laura Eizagirre eta Andoni Manterola zumaiarrak orain dela gutxi amaitu den Basetxea saioko partaideak izan dira. Saioan zergatik sartu ziren eta han bizitakoak kontatuko dizkigute elkarrizketa honetan.

MAITANE AGIRRE ETA IURE ALTZIBAR



**Nola bururatu zitzaizuen horrelako programa batera aurkeztea?**

**Laura Eizagirre:** Tenerifen nengoela amak esan zidan Basetxea izeneko programa berri bat hasi zela eta txantxa moduan esan nion itzultzean aurkeztuko nintzela. Tenerifetik itzultzean, aurkeztea pentsatu nuen arrazoi berezirik gabe. Telefono zenbakia ikusi nuen telebistan eta deitu egin nuen. Arratsalde batean, hondartzan nengoela lagun batekin, deitu zidaten casting-a egin behar nuela esateko. Hasieran ez nekien zer egin, baina lagunak bultzatuta joan egin nintzen. Zumaiako Euskal Jai egunean deitu zidaten hautatua izan nintzela esateko.

**Andoni Manterola:** "Puntazo". Lehen ere aurkeztu nintzen. Oraingoan kasualitate hutsa izan zen: lanean nengoela telebista ikusten (anbulantzi gidaria da) eta bertako eraikina konpontzen eta pintatzen ari zirela aurreko urtean Basetxean parte hartu zuen lehiakide bat ikusi nuen. Bost minuturen barruan Basetxeko iragarkia ikusi eta deitu egin nuen. Esandakoa baino egun bat geroago deitu zidaten; ordurako ez nuen deirik espero.

**Nolakoa izan zen casting-a?**

**L.:** Hautaketa proba bakarra egin nuen eta bertan hogeita minutu igaro nituen hizketan; ohikoa hamar minutu dira... Nire ustez, casting-a egiterako partaide bakoitza nolakoa izango den pentsatuta edukitzen dute eta horren arabera hautatzen dituzte. Niri esan zidaten gauzak zuzen, aurpegi eta lotsarik gabe esaten nituelako aukeratu nindutela.



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379





**A.:** Aurrena formulario batzuk bete behar ziren eta ondoren galderak egiteko gelara pasatzen ginen.

**Zer helburu betetzeko asmorekin aurkeztu zineten?**

**L.:** Esperientzia bizitzera sartu nintzen arren, psikologikoki, janaririk gabe eta elkarbizitzan, nolako jarrera izango nuen jakin nahi nuen. Horrez gain, zenbaterainoko pazientzia dudan neurtu nahi nuen.

**A.:** Hasieran ez neukan helbururik. Behin aukeratu nindutela jakinda nire helburu bakarra ondo pasatzea izan zen. Estrategiak eta horrelakoak erabiltzeko ez dut balio, ez zaizkidalako gustatzen.

**Programatik zer nolako ondorioak atera dituzue?**

**L.:** Batetik, gauzak gehiago baloratzen ikasi dut: familia, betiko lagunak, eguneroko lana (taberna) eta janaria. Basetetik irten ondoren, jatorduetan jatea derrigorrezkoa bihurtu zait; izan ere, goserik eduki ez arren, ezer jaten ez badut antsietatea sartzen zait. Lehen ez zitzaidan horrelakorik gertatzen, baina orain hainbeste egun jan gabe egon naizela pentsatzean eginbeharra bihurtu zait jatea. Bestetik, egoera hauek bizi ondoren konturatu naiz uste baino pazientzia handiagoa dudala; izan ere, behin bakarrik atera nintzen nire onetik eta bertan niri zuzendutako erasoak zelako. Aukera gehiago izan nituen saioaren bukaera alde-

**TOMIAS  
TABERNA**  
- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza 943 86 19 16

**AIZPURUA  
LIBRURU  
D E N  
D A**

Alta-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569

**Mota guztietako  
altzariak**

Xanti Osa

Amaita plaza, 7  
tallerra: 943 860914  
denda: 943 862385



ra, baina banekien ez nuela lortuko ezer aldatzerik pasatzen utzi nuen. Pazientziarena ez da nik bakarrik pentsatzen dudan zerbait; izan ere, Sorginen Laratzekoekin sketch-a grabatzen egon ginenean tabernan, bertan zegoen jendeak esan zidan ez zutela ulertzen nola jasan nituen 39 egunetan azken saiora heldu ziren pertsona horiek, orduan ikusi baitzuten nolakoak ginen kamera atzean eta aurrean.

**A.:** Neu naizen bezalakoa izan naizela, momentu guztietan, gainera. Ikusten nuen gauza batzuk ez zeudela ondo, programaren aldetik manipulazioa zegoela, eta horren aurrean kexatu egiten nintzen; beste batzuk, berriz, isilik garatzen ziren.

### Zer moduzkoa iruditu zitzaizuen programa?

**L.:** Janariaren aldetik gogorra izan zen, ez baitziguten gutxieneko janaririk ematen eta denbora pasa ahala probetako janaria gutxitzen joan zen. Horrela, astebete igaro genuen janaririk gabe eta azkenerako, zorbioak izaten genituen. Atera nintzen amak ezagutu ere ez ninduen egin oso argala nengoelako. Horrez gain, anemiarekin itzuli nintzen etxera. Programa ez da garbia, ezta frogak irabazteko garaian ere, izan ere, garbi ikusten zen saioak beste taldearen alde egiten zuela. Hori ardiekin eginiko frogan sumatu genuen. Bukaera aldean, kanporatzeko lehiak ere ez ziren kanpotik dirudien bezalakoak. Momentuan bertan esaten zuten beste partaidea aukeratzeko, hurrengo egunerako froga prestatu ahal izateko. Froga hori kanporatu nahi

zuten pertsonaren arabera prestatzen zuten. Horren adibide garbia da Nikasio eta Patricia eginiko pasteltxoen froga. Proba fisikoa izan balitz, Nikasiok ez zukeen irabazteko aukerarik izango Patriciaen aurrean; horregatik, jatearekin loturiko zerbait jarri zuten.

Horrez gain, programan partaidea batzuek protagonismoa hartu zuten, horiek egindako lana gainontzekook egindakoa baino gehiago ikusi baitugu telebistan. Irabazlea, adibidez, lanean eta batez ere bertsoan ikusi ahal izan dugu, eta ni pertsona lehor eta paranoiko samar bezala agertu naiz. Gainera, beste lehiakide batzuk estrategia nintzela esan dute. Ez dira agertu, ordea, nik bertsoak amaitzean kontatzen nituen txistek, ezta momentu alaiak ere. Telebistan bota eta gero, ezertarako balio ez arren, pozgarria izan da jendea konturatzea pertsona edo talde baten aldeko jokabidea egon dela.

**A.:** Nik ikusten nuen beraiei komeni zitzaiena ateratzen zutela. Gauzak beraiei komeni zitzaizkien bezala egiten zituzten, probetan adibidez, eta berdin zitzaien gure inguruko guztia. Horren aurrean, nire eginberrara defendatzea zen, ez nuelako hori ondo ikusten. Dena txarkeriarekin egiten dute, morboa eta jendearen arteko enfrentamendua bilatzeko. Telebistan azaldutako hainbat irudik ez zuten zerikusirik lehiaketarekin eta ez zaizkit

gustatu. Baina ezinbestekoak dira audientzia lortzeko. Horretarako, ez dagoen tokitik ere gauzak ateratzen saiatzen dira. Hori izango litzateke programaren alde txarra. Alde ona izango litzateke ezagutu dudan jendea. Niri saioak inoiz eza-

Andoni: "Nire osasuna arriskuan zegoela ikusita, alde egitea erabaki nuen. Horregatik izan ez balitz, han jarraituko nuen arazorik gabe"



JATETXEA  
LUBAKI  
Baselri Auzolagia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAJA

## Antonio Etxabe



Gizonezkoen  
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



gutuko ez nuen jendea ezagutzeko aukera eman dit. Lehen esan bezala, gustatu ez zaidana manipulazioaren kontua izan da. Jendeak kanpotik manipulazioa ikusi badu, pentsa guk barrutik zer bizi izan dugun!

**Zuen harremana hain ona izan al da edo kameraz kanpo haserreak zeuden?**

L.: Ez, kamera atzean ere haserreak egoten ziren eta askotan kamera aurrean baino gehiago. Bukaeran ez zeuden hainbeste haserre, kameren zain egoten ginelako hitz egin ahal izateko. Ez genekien besteak zer erantzungo zigun eta horren aurrean lekuko bat nahi genuen, kamerak izango zirenak. Jendea lehiatzera joan zenez kamera aurreko eta atzeko portaera oso ezberdina zen.

A.: Ni denbora gutxi egon nintzen eta ordura arte, behintzat, ez nuen jendearen aldaketarik ikusi. Kamera atzean eta aurrean berdin portatzen ginen. Baziren kamera aurrean egiten ez ziren komentario batzuk, baina izaera ez zen aldatzen. Hasieran, kame-

raren presentzia sumatzen genuen, baina gerora berdin zitzaigun.



**Higiene aldetik zer moduz sentitu zineten?**

L.: Hasieran konturatzen ginen genuen kiratsaz, denbora pasa ahala gu ez ginen konturatzen, baina kameralariet esaten ziguten izugarritzko kiratsa genuela. Etxera itzulitakoan ere, egun berean lau aldiz dutxatuta ere ez zitzaidan kiratsa joan, bi egun behar izan nituen horretarako.

A.: Han higiena bat ere ez! Arropa garbitzeko "Chimbo" xaboia eman ziguten, baina haiek garbitzerik ez zegoen. Etxera itzulita dutxatu eta ura beltza gelditu zen. Bigarren aldiz dutxatuta ere (momentuan bertan) ura beltza ateratzen zen.

**Telebistan programan bizi izandakoa islatu al da?**

L.: Nire kasuan, behintzat, ez. Bi iskanbila handi izan nituen (Lander eta Antxonekin) eta horiek behin eta berriro errepikatu dituzte, baita finalaren egunean ere.



INMOBILIARIA 943 143361  
 BIDAIK 943 143323  
 Ortega y gasset, 1



SIWA  
 Belardenda  
 Basadi 9  
 943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuna
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



*Okindegia eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

**AITA MARI**  
**KAFETEGIA**

Julio Baobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaira

**TXALAPARTA**  
 O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2  
 Tel. 943 143089



**GARRAIOAK**  
 Asensio Artetxe Iturbe

Tel.: 943 557 189 / 655 706 557  
 Izustari, 4 2A (Zumaira) - Aitzpilloa, 16 E (Mondarrn)

Izandako momentu onak, ordea, ez dira ikusi, esaterako, partaideekin izandako harremana edo egindako barre algarak. Saioa etxean ikustean, inpotentzia sentitu dut hainbat ekintza edo iskanbila ez dituztelako osorik emititu.

**A.:** Bai, baina beraien interesatzen zitzaien bezala. Guk momentu jakin batzuetan esandakoak beraiek nahi zutena ikustarazteko erabiltzen zituzten.

#### **Nola ikusi zenuten zuen burua?**

**A.:** Egia esan, gaizki ez dut ikusi. Nik alde egin nuen aurreko egunean tripetatik gaizki jartzen hasi nintzen eta nire osasuna arriskuan zegoela ikusita, alde egitea erabaki nuen. Horregatik izan ez balitz, han jarraituko nuen arazorik gabe. Gainera banekien han egin nituen lagunak kanpoan ere izango nituela eta dena manipulaturik zegoenez ez zidan pena handirik eman alde egiteak.

#### **Zerbaitez damutzen al zarete?**

**L.:** Bai, azkeneko kontseilu berezi hartan Diegori nire botoa emateaz. Etxean ikusi ahal izan dut nola portatu zen nirekin. Nik bihotz-bihotzez eman nion botoa eta gero nirekin nola portatu den ikusteak haserrea sortu dit. Azkeneko egunean, psikologikoki hain gaizki egon izan ez banintz, agian ez niokeen berari emango botoa. Hori izango litzateke aldatuko nukeen gauza bakarra.

**A.:** Ez naiz ezertaz damutzen. Hara joan nintzenean

banekien kamera bat izango nuela atzetik eta banekien egin behar ez nuen zerbaitez egiten banuen irudiak ateratzeko %90eko aukera zegoela. Gainera, horren bila doaz. Egin eta esandako ezertaz ez naiz damutzen, eta hor nengoela pentsatu izan banu egindako zerbaitez atera ondoren damutu egingo nintzela ez nukeen egingo.



**Laura:** "Beste Basetxe batera apuntatuko nintzateke, baina gogorragoa izan beharko luke, nire onetik ateratzeko modukoa"

#### **Kanpoan ba al duzu beste lehiakideekin harremanik?**

**L.:** Bai, batzuekin beste batzuekin baino gehiago. Hala ere, egin diren bazkari eta afarira joan naiz. Antolatutako gainontzeko parrandetara ezin izan dut joan, lana dela eta. Esan nahi nuke, gainera, Landerrek barkamena eskatu didala azkeneko iskanbilarengatik.

**A.:** Bai, gehienekin bai. Han barruan ondo moldatzen nintzen jendearekin kanpoan hobeto eramaten naiz.

#### **Horrelako beste saio batera aurkezteko prest al zaudete?**

**L.:** Beste Basetxe batera apuntatuko nintzateke, baina gogorragoa izan beharko luke, nire onetik ateratzeko modukoa, oraingo honetan gutxitan galdu baitut pazientzia.

**A.:** Bai, niri beti gustatu izan zait telebistaren mundua. Garai batean Txiskolan ere atera ginen eta prest egongo nintzateke. Barrutik horrelako saio bat ezagutzen dudanez beste planteamendu mental batekin joango nintzateke, orain erre naizen bezala erre gabe, ulertuaz gauzak manipulaturik daudela.



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

*Gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School  
**Harvest**

**Ingelesko klaseak adin guztietan**

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

# azkoititik elgoibarrera zeharkaldia

## (Irukurutzeta-Karakate)

XABIER ARANGUREN

Txango luze honek bi bailara lotzen ditu eta mendizerra zeharkatzean bista zoragarriez gozatuko dugu. Ibilbidean zehar pagadiak presente dira, mendikatearen goialdean, iparraldera begiratzen duten magaletan. Gainaldean, berriz, soilguneak dira nagusi. Elosuko auzo aldean ere pagadi sendoak ditugu, berdin Keixeta, Pagobedeinkatu eta Agerre-buru aldean. Goialdean ere historiaurreko aztarna ugari aurkituko ditugu, tumulu eta trikuharriak.

Autobusa hartu eta Azkoitiko bigarren geralekuan jaitsiko gara. Aurreneko lana Urrategiko auzora doan bidegurutzea aurkitzea izango da. Horretarako, Zumarragarantz segituko dugu eta Elgoibarko bidegurutze zaharra pasa ondoren, eskuinera joko dugu etxe berrien tartetik, bariantearekin topo egin arte. Horren ertzetik segi Urrategiko bidegurutzearen seinalea ikusi arte.

Aldapa gorari ekingo diogu. 3 kilometro egin eta gero auzo honetara helduko gara. Igoera arriskutsua izan liteke, auto-rallietako entrenamenduak egiteko errepide bezala erabiltzen baita.

Urrategitik, baserri errepidetik gorantz doan bidetik joango gara. Ur biltegi bat eta bihurtune batzuk pasa eta gero, eskuinera hartu. Zabaleta deitzen den txaletaren ondotik pasa, gero beste baserri bat eta hesi bat pasatzeko. Bidezidoretik segi gorantz; berriro errepidera aterako gara. Bihurgunea gainditu bezain pronto, eskuinera hartu porlanezko hasiera duen pista. Ezkerrean gelditzen den eguteran inguru honetako baserri garaiena dago.

Pistatik segi eta bihurtune batean harrobitxo baten arrastoak daude, pixka bat gorago. Aurrerago, berriz, bi aukera

### Zentral eolikoak?

### Horrela ez!

- Mendien industrializaziorik ez!  
Energia Eolikoa bai.

### Ingurugiroaren txikiziorik ez!

### Gurea den energiaren monopolizaziorik ez!



Erkaxo ingurugiro taldea

## ibilbideak

ditugu: bidezidor arrastotik (laburra) eta pistatik zertxobait luzeagoa, baina malda gutxiagokoa. Biek eramaten dute txabola bateraino. Orain, eskuinetik eta gorantz zuzen xamar pistatik Irukurutzetako gailurrean ordu laurden batean helduko gara. Irukurutzeta (895 metro): gutunontzi eta erpin geodesikoa. Ikuspegi zabalak Urolako ibar aldera. Orain, mendebalera geratzen den Kurutzebakaar gailurrerantz goaz. Basoaz estalita dago eta bilatu egin behar da. Hauxe da mendilerroaren gailur garaiena. Bertan tumulua dugu.

Oihanetik aterata aldapan beheara joango gara. Ikuspegi ederrak dauzkagu Deba Garaia aldera eta Bizkaia aldera,

**ad** **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85


**Kresala**  
Taberna

Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

**ALTZARIAK OSTOLAZA AROZTEGIA**

Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325



### Erreferentziak

- Azkoitia 0 km.
- Urrategi 3 km.
- Irukurtzeta 6,5 km.
- Atxolin 9 km.
- Kaakate 12 km.
- Elgoibar 16 km.

**Luzera: 16 km.**  
**Desnibela: 800 m.**  
**Iraupena: egun osoa.**

Udalatx, Anboto eta Gorbearen ikuspegiarekin. Nahasiko Goenako trikuharria dugu alboan eta aurrerago, mendilepo batean, Pagobedeinkatuko tumulua. Atxolin tontorra dugu parez pare, harri handi batzuk adierazten dute. Aukeran dugu igo edo magaletik jarraitu. Igoeran ere beste hiru tumulu ditugu eta Atxolingo gailurrean beste gutunontzi eta txapazko jaiotza astun bat. Atxolinetik azkeneko tontorra ikusten dugu, Karakate. Tartean, Iruixa Gizaburuko tumuluak (Akelarko tontor lasaian egoteko aukera dugu, Karakateko zalapartatsuaoren orde).

Behin Urrategiko etxeoandre batek esan zigun era Kaakatetik gentozen eta guk orduan konturatu ginen Karakate

izenaren kontrakzioa zela. Interesgarria iruditzen zaigu izen hau mantentzea hitz zuzenarekin batera.

Karakate gailur bortxatua da: errepidea, autoak, antenak... eta horiek guztiek ekartzen dituzten zaborrak. Elgoibarrera jaisteko Karakatetik hego-mendebaldera dagoen Munetako haitzetara jo; beherantz doa pista bat topatu eskuinera doana eta beherako gidatuko gaitu. Tarteke, bidezidorrek bidea laburtzen digute. Jaitiera bukarran Beraseta baserri ingurura ateratzen gara, ezkerretik, Roke Deunaren auzora ateratzeko. Hemendik segituan geltokian egongo gara eta ibilbideari amaiera emango diogu.

**OSTOLAZA**  
 BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea  
 tel: 943 86 16 66  
 e-mail: denda@ostolaza.com  
 www.ostolaza.com

**Nikol**  **Enea**

**TABERNA**

Amaiako plaza



luis mari goikoetxea 'goiko' aita mari arraun elkarteko lehendakaria

## "erabaki gogorra izan da baina beharrezkoa ikusi dugu aldaketa hori"

**Dagoeneko Zumaiko arraunlariak hasiak dira uretan entrenatzen, denboraldi berria hastear dago eta. Baina betiko taldearekin batera, lagun berriak ikusi ditugu aurtengoan.**

### IZASKUN URBIETA ETA ITZIAR GARATE

Luis Mari Goikoetxearekin hitz egin dugu lagun berri horien inguruan, baita denboraldi berriaren inguruko gaiez ere.

#### **Nola ikusten duzue aurtengo denboraldia?**

Ezin da aurretik dena esan, baina uste dugu urte polita egingo dugula. Horretarako ari dira prestatzen. Gazte mailan, uste dugu ongi ibiliko garela, neskek ere urte oso ona egin zuten eta aurten ere ikusiko dugu noraino iristen diren. Helduekin, aldiz, egiten ari garen lan hori guztia indartzeko 5 mutil berri ekarri ditugu tripulazioa gogortzeko, indartzeko.

#### **Zein dira fitxaje horiek?**

Guztira bost izan dira etorri diren mutilak. Horietatik hiru anaiak dira, hernaniarrak. Luis, Arkaitz eta Aitor Goñi. Bestea pasaitarra da, Igor

Makazaga. Joan den urtean Castron ibilia da, baina joan-etorriak luze egin zaizkio eta hemen geratzea erabaki du. Azkena, Xabier Zulaika da, hemen hazitako arraunlaria. Zumaikatik Bermeora joan zen eta orain berriz etxera itzuli da. Zumaikatik irten diren beste arraunlarietara deitu zaie, baina gauza bat edo bestegatik, ez dira etorri.

#### **Zein helbururekin ekarri dituzue?**

Aurten saltoa eman nahi dugu. Hori lortzeko, indar berriak, esperientzia eta jende gehiago behar genituen. Horregatik hartu genuen erabaki hori, bestela gaizki ibiliko ginatke. Erabaki gogorra izan da, beti etxeko jendearekin ibili garelako lanean eta beraiekin jarraitu nahi dugulako, baina momentu honetan beharrezkoa ikusi dugu aldaketa hori. TKE Ligara igotzea da gure helburua. Badakigu bidea zaila dela, baina



*“Aurten saltoa eman nahi dugu. TKE Ligara igotzea da gure helburua”*

**ITSASKI**  
SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058

CROISSANTERIA

pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**Marina**

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

**ZALLA**  
Taberna - Erretegia

\* plater konbinatuak  
\* otartekoak  
\* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

saiatu egin behar dugu. Eta zergatik ez, baita Kontxarako sailkatu ere.

### **Fitxaje horiek denboraldiari ikuspegi berria ematen al diote? Ikuspegia asko aldatzen al dute?**

Bai, nik uste baietz. Ia tripulazio erdia da hori eta uste dut aldea nabarmentzen dela. Federazio Ligan eta TKE Ligan ibili nahi badugu bi traineru osatu behar ditugu: batek maila nagusian jokatu luke eta besteak bigarren-goan. Hori guztia lortzeko jendea beharrezkoa da, eta, ondorioz, fitxajeak egitea erabaki dugu.

### **TKE Ligan irautea zaila izan daiteke. Castro edo Orio bezalako izenen artean ez al duzue itolarrik sentituko?**

(Irribarrez). Castro eta Orio ez dira bakarrak. Urdaibai aipatu besterik ez dago, hasiera batean ez zuten jenderik, ez zekiten nola eramango zuten denboraldia aurrera eta orain emaitzak begiratu besterik ez dago. Gure helburua, erdialdean-edo ibiltzea izango litzateke.

### **Negozio bihurtzen ari al da arrauna?**

Egoera zaila da. Beti esan izan dut, arraunlariei zerbait eman behar zaiela, guk lehengo urtean egin genuen bezala. Guretzat, Liga nagusian sartzea aukera bat izango litzateke.



teke: bidaiak, estropada gehiago, telebista... Garrantzitsua da hau kluba aurrera ateratzeko. Orain patrozinatzaileak bilatzeko aukera gutxiago ditugu. Telebistan ateratzen zaren momentutik gauzak aldatu egiten dira. Publizitate eta telebistak aukera gehiago ematen duenez, eskatzeko aukera handiagoa da. Arraunlarien arteko trukean, aldiz, klubak ez du ezer irabazten. Politia izango litzateke zertxobait ateratzea, baina egoera arraunlarientzat da soilik ona. Eurek atera dezakete diru pixka bat.

### **Trainerua nola osatuko litzateke? Nagusitasuna izango al dute fitxaje horiek trainerua osatzerakoan?**

Hasiera batean, Liga nagusian ekarpen berri horiek eta etxeko onenak sartuko ditugu eta bigarren Ligan izango dira besteak. Lehen

edo bigarren mailan izate hori arraunlari beraien eskuetan dago, egiten duten lanaren arabera sailkapena izango da. Fitxaje hauen beste helburu bat etxekoek lo ez hartzea ere bada. Esan bezala, etxekoekin lanean jarraitu nahi dugu eta horregatik beti izango dute aukera kirol honetan jarduteko.

### **Arraunlarien artean ze giro nabaritzen da?**

Oso ona. Guk arraunlariei hasieratik guztia argi azaldu genien eta egia esan oso ondo hartu dute. Oso ondo onartu dituzte, giro oso ona dago eta oso ondo moldatzen dira elkarrekin.

### **Nola uste duzue hartu duela aldaketak herriak?**

Jendea askotan lehenago izaten da prest hitz egiteko, lanean jarduteko baino. Beharbada ez daki zenbat



**ilargi**  
Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24



**Itzurun**  
ATEAK

- Material guztietako leihoak:  
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



**Erepegi**

OIKIA 945 447683

kostatzen den etxeko mutilekin bakarrik mantentzea. Guztia gaizki ateratzen bada, badakigu egurra emango digutela, baina jakinaren gainean gaude. Egoera hori barneratua dugu.

**Eta herriaz, afizioaz ari garela, nola ikusten duzu Zumaia?**

Badaude jarraitzaile batzuk, baina... tarteka joaten dira batzuk kanpora, baina betikoak direla esan daiteke, jendeak ez dauka ohitura askorik. Kontxan ikusten da giroa, jende gehiago, baina egun bat izaten da hori. Guk horretarako urte osoan lanean jardun behar dugu. Aurten gauzak ondo ateratzen badira ikusiko dugu jende gehiago animatzen ote den.

**Eta kirolari aldetik, nola ikusten da Zumaiako afizioa?**

Mutil gazteak lortzea gaur egunean zaila da. Arraunlari eskasia dago kostalde guztian. Guk 27ko taldea osatzea lortu dugu eta beste lau edo bost fitxaje gehiago egitea espero dugu, bigarren trainerua ondo osatzeko, bestela nahiko justu ibiliko ginatke.

**Joan den denboraldian neskek emaitza onak lortu zituzten. Hau ikusirik ez al da neska edo mutilik animatu?**

Nesken kasuan, ez da inor berririk



**ARRAUNLARI BERRIEKIN HIZKETAN**

Entrenamendu saio gogor baten ondoren bost arraunlari berrien iritzia jaso dugu. Bi ordu arraunean igaro dituzten arren, irribarre batez hartu gaituzte iritzia eskatu diegunean:

**Zer moduz ikusten duzue denboraldi berria hemen?**

Ez gaude goiko mailan eta orain horrek asko baldintzatzen gaitu. Obligazioa bezala da denboraldi ona egitea Federazio Ligan. Gero ikusiko genuke Kontxara begira zer egiten dugun. Ez dakigu, baina helburuetako bat Kontxarako sailkatzea da.

**Ondo hartu al zaituztete? Giro ona nabaritu al duzue?**

(Guztiak ia batera) Primeran. Oso giro ona dago. Jende gaztea da eta oso jatorrak. Alde horretatik, primeran moldatu gara.

etorri. Bost bakarrik daude eta hori ez da ona. Gainera, aurrean aulki mugikorrean hasteko asmoa dago eta jende gehiago izatea ez litzateke gaizki etorriko. Etorri berria den mutil batek galdetu zigun ea posible ote zen honelako arraunean jardutea eta materiala bazegoela ikusita, ikusi dugu aurrera egitea posible dela. Mutilen kasuan, aldiz, arraunlari gehiago daudela esan daiteke, baina oraindik ere gehiago etor daitezke. 12 urtetik gora duen edozein etor daiteke, gogorra da, lotua baina edonork egiteko modukoa. Gazteekin, hasieran jolas moduan planteatzen dugu: ikasten hasi eta trebatu. Eta gero ikusiko dugu. Baina beti ere gauzak zuzen eginez.

**Amaitzeko, jendearen animuak pizteko hitzik ba al duzu?**

Herriari esango nioke bai animuz eta bai ekonomikoki ahal duen heinean laguntzeko. Laguntza beti izango da ongi etorria. Honetaz ari garela, instituzioei gu kontuan izan gaitzatela eskatu nahiko nieke. Gure eraikina, adibidez, 1989. urtekoa da eta eskatu izan dugun arren, orain artean egin den obra bakarra kristal batzuk aldatzea izan da, eta hori, gainera, kanpoko obra bati esker izan da. Besterik ez, lagundu dezatela eta animatu, hori baita gure taldeak behar duena!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



icardo J. Azcue Yeregui

Abokatuak • Aseguruak  
Finan. Administrazioak

txomin aguirre 4. behea  
20.750 zumaia (gipuzkoa)  
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651  
Fax. 943 862746



\* Etxeak eta dendak  
\* Enpresa eta auzo lanak  
\* Errota garbiketeta eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

# Baleike berri innobadore eta hobexeagoa



8. zenbakia atera zutenean, Gabonak pasa berriak zeuden. Hala ere, oraindik ere Gabon giroa suma zitekeen erreportajea irakurriz gero. Olentzero ala Gomensago, hor dago kokka. "Zumaiako Olentzero partikularra dugu Gomensago, Gabonetan opariak ekartzen dizkiguna, eta Gabon Egunean abesten diogunean, goxoki eta txanponak botatzen dizkigun pertsonaia". Ez dezatela haurrek hau irakurri, honi ere erregaloak eskatzeko kapaz dira eta. 1995. urte hartan, Jon A. Fourcade iruñarra eta bertako Joseba Ossa izan ziren Julene Azpeitia ipuin lehiaketako irabazleak. "Gauza dibertigarri eta era berean orijinal egin nahi izan dut", zioen Josebak. Jon Alonsorena, berriz, "Bortxakeriazko ipuin bat da nirea, Europa edo ia munduko edozein tokitan gerta daitekeena". Datozen egunotan banatuko dira aurtengo lehiaketako sariak. Zein izango ote dira ipuin berri hauen gaiak...

"Urte berri bat heldu zaigu eta urte berriarekin gu geuk ere Baleike berri innobadore eta hobexeago bat aurrera ateratzeko asmotan abiatu gera". Beno, beno, lasai, orain 10 urte asmo horrekin ziren Baleikekideak. Gu berrikuntzak sartzen saiatuko gara urte honetan, baina innobadoreak izango diren ez dakigu.

Abelin Linazisorori egin zitzaion elkarriketa urtarrileko zenbakian. Bikoiztaile lanetan aritua, garai hartan Goenkaleko Xatur pertsonaiaren gorputzean sartzen zen Abelin. Konplikazio handirik gabeko pertsonaia zen Xatur Abelinentzat, eta saioak zuen arrakastarekin harrিতuta agertzen zen. Hori bai, oraindik ere "Xatur, Xatur!" batzuk entzun behar ditu.

Emakumeak futbolean ikustea jada normala egiten zaigu. Orain 10 urte, ordea, ez zen hain ohikoa. Hasierra batean "jendea kuriositatez eta barre egitera joaten zen partiduak ikustera". Hala gogoratzen zuten jokalarri beraiek. "Urteak pasatu ahala, ordea, futbolearen ederki asko jokatzen dutela erakutsi dute". Hamar urte geroago, Gipuzkoako talde indartsuena bihurtu da Zumaiakoa. Naturari dagokionez, Zumaiaren ikusi ahal izan ziren sei hegazti bitxiri buruzko informazioa irakur zitekeen. Gutxitan edo inoiz azaltzen ez diren hegaztiak omen ziren: Ross-eko kaioa, urre-txirria, etab. Antimilitarismoaren atalean, berriz, gerrarako jostailuak ziren hizpide; sexualitatean, azkenik, oraindik ere desadostasun ugari sortzen dituen gaia: abortua. Beno, ba, zuen baimenarekin innobazioak pentsatzen hasi beharko gara. Hurrengo hilabetea arte.

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatu

*Juaristi*  
**JATETXEA**



Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

# “Gu jolasean Goiko Plazatik Andre Maira bitartean beti. Behera ezta pentsatu ere!”

ABELIN LINAZISORO

Grazianekoak Goiko Torreko bidean bizi ziren eta bizi dira. Hiru ahizpa dira, Ixabel bigarrena izanik, eta hauen aitta itsas gizona zen, arrantzalea. Gure mutil koxkor sasoiari Joxe Manuel Grazia bere txapela eta bibote handi eder harekin pelikuletako pertsonaia iruditzen zitzaigun.

## Noiz jaio zinen eta zuen aittak zer lan mota egiten zuen?

1926ean jaioa naiz, eta gure aittak zaku fabrika eiten zun lan. Zumaixan bazan zaku fabrika bat. Balentziaganeko tailerreko horretan izan behar zun. Zelaiaren andriaren aittena zan. Zelaiaren andria aberatsa zan, Arbillaga, eta eerra ein zun honen aittak! Emakumeentzako lana zeukan tailer bakarra Mutrikura eraman ez zuen, ba! Eta fabrika honetan eiten zun lan gure aittak mutil koxkorretan. Tailerra eraman zutenian gure aittak hamalau urtekin itsasora jun behar izan zun.

## Zenbat urtekin hasi zen lanean, ba, zuen aitta?

Ba, orduan hamabi urtekin hasten zian eta gure aitta hamalau urtekin itsasora. Orduan barku asko ez zian izango. Ni akordatzen naiz San Telmo izena zun batekin. Bidasorotarra uste det. Ba, han hasi zan gure

*“Euskerazko dotri-  
ñakin hasi ginan  
errepublika garaixan,  
baina etorri da Franco  
buru haundi hori eta  
adios gure euskera!”*



aitta eta gero urte askoan Edurne-n. Hauek lekeittiarak zian eta eerra ein zixuen gure aittari. Nagusixa frontoiko jokalaria amorratua zan, Etxabetar hauek danakin bat eginda ibiltzen zan. Hainbeste urte lan egin eta ez zixuen pagatu zahar-dadeako ezer. Jubilazitorako dirurik ez. Garai hartan itsasoko laneko hiru urte nahikoa izaten zan minimoa kobratzeko. Guk geuk pagatu giñun gure aittari. Hilean 500 pezeta. Bizitza guztixan itsasoan eta 500 pezeta hilean!

## Neska koxkorretan jolasean ibiltzeko-eta ez zenuten Goiko Torre ingurutik irtengo, ezta?

Bueno! Ezta pentsatu ere! Kanpo santuko atzean. Hura zan gure jolas tokixa. Gerra denboran ere, tropak sartu zianean, hemengo emakume batzuei ilea zero moztu zixuen eta kaliaz ibiliazi. Guk ez gendun ezer ikusi. Andre Maixan ginan eta kalera jatxi ginanean jakin gendun.

## Hori geroko utziko dugu. Orain heldu diezaigun jolas kontuei.

Ba, gu jolasean Goiko Plazatik Andre Maira bitartean beti. Behera ezta pentsatu ere. Gu, zazpi-zortzi lagun, harri koskorrekin asko ibiltzen ginan. Itxiak eiten, automobilak eiten... Antomobilen bi asiento

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

**Maite**  
ileapaindegia

**Malaur**

ert  
informatika

tresna digi  
internet  
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95

**DALAC**  
COMPUTER



eta bolantea ein, jarri eta gustora. Goiko deposito inguruan ere ibiltzen ginan. Lehengo depositoa oaingoa baino behero zegon. Ba, hortxe ibiltzen ginan gehixen jolasian. Eta noizean behin Putrieneko aittatta zaharren baratzara jutun ginan zeozer harrapatzera.

### Zer egoten zen, ba, haren baratzean?

Arbola asko. Melokotoiak, txermenak, sagarrak... asko. Eta gu, Martzeliño eta Ixidro bikixak jefe genitula, hara jutun ginan. Atzeko zulotik sartu, zerbait harrapatu, eta ospa saltaka! Kuadrila danak jaten gendun. Pusketa bat ba ere.

### Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen al zineten?

Ez. Ixidro eta Martzeliño bai. Haixek gure jefiak zian. Baina bestela ez. Poto-potoka, trenadioska, kukuka... Ogixa harrapatu eta geo partitu ere eiten gendun.

### Nondik harrapatzen zenuten?

Bazan hamen Elorriaganeke panaeiko gizon zahar bat, Pollollo ezizenez, patriketan boilo txikixak eukitzen zituna. Guk eskaparetetik beitu eta: Hor zeon Pollollo! Eta aguanta. Zai. Oaintxe ikusten gendun Pollollo labaldea jun zala, gu entradako atetik makur-makur einda sartu, beti ere Ixidro eta Martzeliño jefe ziala, boilo txiki haixek harrapatu, bagenekiuon non eukitzen zitun gordeta, ba, eta bai saltaka ein ere! Eskailerak bajatu eta San Telmoraino geatu gabe! Han boiloak zatitu, pusketa



## “Paparrean bandera espainol txikixa eraman behar izaten gendun kalia”

bana jan eta gustora! Eta askotan eiten giñun hori Pollollori, e? Bagenekiuon, ba, noiz jutun zan patrikak bete-bete einda Metroko Soilarena bixitatxoa eitera, hari boiloak ematera, alegixa. Ba, hura arrastaka-arrastaka bueltatzen zaneako guk paxara einda! San Telmo goraino arnas batian!

### Sagar lapurretan ere ibiliko zinatzen, ba?

Ene! Kanteako sagastixak jakingo balu hitz egiten! Zenbat sagar harrapatu gendun! Bueno, harrapatu ez. Ez harrapatu eta ez ezer. Sagarrari kaska ein eta blast bota. Tuntunak gu. Sagar danak igual arbol batekoak, e? Kaska ein eta bota beti ere. Behin Kanteako gizonak eman zigun segida! Ez gintun harrapatu, ez. Ez dakit noa jun ginan. Bedua gainera edo. Eta estazixota jun? Almazenera?

### Zer garaitan zen hori? Neska koxkor garaian?

Ez, gerra bukaeran. Gose denboran.

### Beno, oraindik neska koxkor aroan gabiltza. Eskolan, monjetan ibili al zineten?

Hasieran bai. Gero gure amari Doña Blanka eskolaz aldatzeko esan zixon. Hau



TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694

### AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsiának
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA

maistra zan. Eskola nazionalera jun ginan. Paretan errepublikako koadroa zeon. Errepublikako dama bakar bakarrik. Gero Francok, alde batean Franco, gurutzea erdixan, eta José Antonio Primo de Rivera beste aldiari. Han zer ikasi gendun, ba? Ezer ez. Gure maistrak ez zekien ia ezer eta! Bestela ikasiko gendun. Ba, hori, leitzen eta eskribitzen pixkat. Sumar eta restar. Eta multiplikazixuak eta dibisixuak numero batetik bakarrik. Geografia eta kontu hauek ixa ezer ez. Astian bitan dotriñara ere juten ginan. Euskerazko dotriñakin hasi ginan errepublika garaixan, baina, etorri da Franco buru haundi hori eta adios gure euskera! Gero erderaz ikasi behar. Hura zen zaila guretza! Kostatu eiten zikun, e?

#### Gerra piztu zeneko konturik?

Ba, hemen jendia ihesikan asko sartu zan. Baina Francon tropak segituan sartu zian. Naparruatik. Hemen gure kalia bazian muleruak! Zorrixa eta zikina ekarri zuen! Bueno! Gure kalia goitik behera dana astoa egoten zan. Baserritarrena. Ba, lotzeko argoila danak haixentzako izan zian. Manduentzat. Gure entrada haundi zaharrean, berriz, kapitainen zaldixak eoten zian. Etxe honek atzeko aldera txabola haundi bat zeukan, ba, hor ere manduak eoten zian. Ba al dakizu etxe hau zorritz, txintzez eta zikinez bete zala?

#### Francoren tropak denbora luzean egon al ziren, ba?

Ez naiz ondo akordatzen, baina hilabete



*“Hasi da gure ama  
begira eta, ene!,  
gabardina harrapatu!  
Petaka eta makina ere  
bai! Gure amaren  
pena!”*

batzuk bai. Oain pelukeixa dagon tokixan Iñaxio Astok lejia eiten zun. Eskerrak hari. Lejien potzua azido-azidua zan eta batenbategi gure amari-eta esango zixoen azidoa ona zala eta kumunera botatzeko. Potzotik hartzen zun baldeka, kumunera bota eta haretzek garbitu zigun guri txintxiak eta zorrixak.

#### Zuen ingurua nolakoa zen haurtzaroan?

Hamen komentuko izkinatik goraino argollaz beteta zegon. Hirurogeita lau zeudela uste det. Goixan, gurutze parian, behixentzako aska haundi bat zeon, iturrixakin, eta beste aska txiki bat hau ere iturrixakin, komentuko izkinan. Behero Goiko Plaza, eta honen bukaeran, monja zaharren ate ondoan, beste aska bat zeon eta kumunak. Urdaizalieneko behixak (Paxkualenenekoak) aska honetara juten zian ura edatera. Urdaizalienekoak zian plazan urdaxa saltzen zuelako. Txarrixa hil, pusketak ein, eta plaza barrenian, hondo-honduan, mahaixa egunero jartzen zuen. Urdaxa saltzeko, urdaizazpikoa ez. Goiko Torreko askara Xendokuak-eta eramango zuen ganadua. Beherago, oain Kutxa dagon parian, beste aska bat zeon eta paretan haundi bat beheko kaletik goraino. Monjena. Eta hamen, gure aldamenean gorago, Donatonean, bazan behi bat karruakin ibiltzen zana. Behi bateko karrua, belarra-eta eramateko. Basurueruenekoak ere behi bateko karrua ibiltzen zuten herriko zakarra jasotzeko.



Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak**

**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



**PEUGEOT**

**Zenbat barrendero zeuden orduan.** Bakarra. Patxi Barrendero. Garai hartan herri guztixa beak garbitu behar eta goizeko lauretako hasten omen zan lanean. Kaleko belarra ttarra-ttara kentzen hasten zala. Oso goizo. Egunak ere orduan goizo argitzen zun, erlojua euzkixakin batera zeon-eta. Ba, lauretako hura lanean. Neuk ere akaso inoiz jaikita ikusi ote nun? Leikena. Kaleak garbitzen bea bakar bakarrik. Oain dozenerdi bat behar dia. Eta Zumaiko kaskua oaingo bea da: Goiko Torretik behera, Goiko Plazara juteko bost kale, beherago Kale Berrixa (Mari Kalea), Zubiaurre (San Telmo) Erribera kalea eta Arru kalea. Zakarrentzako ere karro bakarra zan Zumaixan. Baina orduan etxetan ez zan ia ezer sobratzen, surtan erretzen zan edo txarri jana eiteko gordetzen

zan. Txarri jana bila etxetara poto batekin etortzen zian.

**Zuen kaleko manduez, zaldiez, zorriez eta txintxeez gain, gerra garaiko beste zerbait gogoratzen al zara?**

Lehen esan detena, emakume batzuei ilea zero moztu zixuela. Beren gizonak frentera jun zialako-edo. Eta tomak ere

bai. Toma de Asturias, toma de Teruel eta hoixetan bueltako kanpaiak hasten zian dinbiti-danbaka eta ume danak kalera. Txaranga txiki batek irtetzen zun eta gu hura ikustera juten ginan kalera. Bueltako kanpaiak parrokixan jotzen zituen, Franco eta hauek aurrera zihoazen, ba, eta gu iñuxente-iñuxente eskolatik kalera. Cara al sol-eta erakutsi ziguten ederki. Derrigor ikasi behar izan giñun, e? Eta eskubiko besoa altxata. Eta paparean bandera espainol txikixa eraman behar izaten gendun kalia. Gure izeko batek eerra asmatu zun! Limonaden tapak bandera espainolez forratu, tela edo jertse gainetik jarri eta azpitik kortxo txiki bat sartu eta bale. Erropa hondatu be behintzat. Azpiko kortxoa soltatu eta bandera espainola errax kentzen gendun itxian.



jarraituko du...

**BEDUA**  
**ITURGINTZA S.L**  
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA**  
**-ZORU BERO-EMAILEA**  
**-GAS INSTALAZIOA**  
**-GAS NATURALA**  
**-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
Tel. 943 14 33 69

**Galdona**



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

**Zapaia**  
Zaldua

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**STIOM**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

**"Muagi"**

ERREHABILITAZIOA  
KIROL MEDIKUNTZA  
FISIOTERAPIA

**Aita Mari 3.blokea**  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

## z u m a i a k o a r t e e z h o r r e n e z a g u n a

# Jabier Elorriagaren estazio abandonatu bat, aulki bi, eta mila istorio asma ditzake tristurak

ISMAEL MANTEROLA

1996. urtean eskultura lehiaketa antolatu zen Zumaiaiko itsasadarrean eraiki zen barra berriaren eskultura kokatzeko. Garai hartako legeak behartzen zuen lan publiko handien aurrekontuen ehuneko txiki bat artera edo apaingarrietan gastatzea. Lehiaketaren irabazlea Jabier Elorriagaren (Galdakao, 1959) proiektu zatiakua izan zen.

Elorriagaren eskulturak arazo larria konpondu behar zuen, oso luzea eta estua den pasealekuan funtzio berezirik gabeko arte lan bat kokatzearena.

Elorriagak memoriara eta poesiara jo zuen. Joseba Sarrionaindia idazleak Narrazioak liburuan argitaratutako ipuina abiapuntutzat hartuta, ibilbide luzea proiektatzen du espazioan eta denboran: Urolako trenbidearen oroimena (garai bateko itsas portuaren bultzatzaile ekonomikoa izan zena), eta itsas muturreko hiru geldiueneko paseoa. Lehendabiziko geldiuenea atsedean lekua da, okertutako itsas horizontearen aurrean, espazioaren logika desagerrarazten duena. Bigarrena eskulturaren unea da, esperimentazioa-



rena, begiekin baina, batez ere, ukime-narekin ezagutu behar duguna. Hirugarrean, atsedean hartuko dugu berriz, estazioa baitaukagu zain. Bi aulki, bakar-dadean egindako bidai bukaeran beste norbait topa dezakegu eta. Bukaera arraroa da, itsas-muturraren norabidearen kontrakoa. Aulkitan eserita Zumaia daukagu aurrez aurre, nondik gatozen esaten digu eta nora bueltatuko garen ere, bidaiak bueltako bidea hartzeko aukera bakarra du eta, ez badugu bidai arrisku-tsuagoan murgildu nahi behintzat.

Bidaia egin ondoren, mila istorio asmatu ditugu, mundu ezberdinak eza-gutu ditugu, esperientzi onak eta txarrak jasan ditugu, eta bidaiaren bueltan, itsas-mutur gogor eta giza eskala gabeko horretan gure izatearen zatia utzi dugu, munstroa gizatu dugu, harreman amarauna zabala sortu dugu itsasoari egindako erronka den eraikuntzatar horretan. Nola lortu dugu? eskulturaren bidez. Eskulturak planteatu dizkigun gaiak, galderak eta erantzunak, materialak eta formak, horiek guztiek adiskidetu gaitu lan publiko erraldoiarekin.



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

## GIZARTEKINTZA zentru soziala

### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzuertarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

## ZINE FORUM

urtarrilak 27, osteguna, gaueko 10:15ean

**Primavera, verano, otoño, invierno y... primavera**

Zuzendaria: Kim Ki-duk Aktoreak: Oh Yeong-su, Kim Ki-duk, Kim Yeong-min

Asiatik pixkanaka etortzen ari den zineman zerbait nabarmendu beharko bagenu, batez ere sentsibiltate handia azpimarratuko genuke. Japoniar, txinatar edo Vietnamgo zinearen atzetik Koreakoa datorkigu.

Gaurko film lau urtarotan zatitua dago, baina urtaro batetik bestera urteak pasatzen dira, eta luzeena udazkenetik negurako tartea da. Udaberriaren zatia monje budistaren eta mutiko ikaslearen arteko harremanetan oinarritzen da. Udan, berriz, gaztetan monasteriora ekarri duten neska batengana irekiko da mutikoa, amodioa ezagutuko du eta neskak alde egitean atzetik jarraituko dio. Udazkenean, ikaslea oso aldatua itzuliko da monasteriora; berriro bere onera etorriko da, baina alde egin beharrean aurkituko da; azkenik, neguan berriro itzuliko da monasteriora bizitzaren zikloa erabat osatuz. Mutiko sasoi-tik gizon heldua izaterainoko denbora lau urtarotan laburtzean, garbi du sinbologia eta bizitzaren aro desberdinak urtaroen koloreez nahastuak erakutsiko ditu zuzendariak, edertasuna nabarmenduz.

Film gardena, poetikoa, edonori gustatzeko modukoa, begientzako etengabeko oparia baita. Hitz batean: gauza guztien gaitetik zinema batez ere irudia izanik, gaurko film hau maiuskulaz idatzitako zinea da.



otsailak 10, osteguna, gaueko 10:15ean

**Super Size me**

Zuzendaria: Morgan Spurlock.

Morgan Spurlock-en esperientziak, hilabete batez Estatu Batuetako McDonald's-en jatetxe batetik bestera gelditu ere egin gabe, batzuetan suizidio gastronomikoa dirudi. Badago esaldi bat, "Zer jan, hura izan", oraingoan, fast food-aren kultura, indar berezia hartzen duena; izan ere, jateko era hori, Iparrameriketako gizarte zoroaren ezaugarrietako eta indarguneetako bat den hori, izurritea balitz bezala zabaltzen ari baita gure mundu globalizatuan.

Hogeita hamar egunetan, Spurlock-ek sekulako dieta egin zuen, McDonald's-ko produktuak besterik ez zituela jaten. Kamera eta giza akuri hau zaintzen zuten sendagileak dira yankien grande bouffe bertsio honen lekukoak, erlojuaren kontra bizi den gizarte baten barrenetara bidaia, eta erakutsiko digu amerikarrei zer jan behar duten txiki-txikitatik nola erakusten dieten.

Hain zuzen ere, bereziki kezagarria da eskoletako jateko ohi-turari buruzko atala; izan ere, eskoletako jangela gehienetan ematen den jateko plastifikatuak atea zabaltzen baitie etorkizunean Big Mac-en atzaparretan eroriko direnei.



Barretik negarrera ez dago ezer, eta Spurlock argi eta garbi erakutsiko digu lodikoteen herrialdean barrena egiten duen ohiz kanpoko ibilaldi honetan; baina bidaian hutsune nabarmen bat ere sumatu dugu: McDonalds-enporioa eta horren inguruko haragi industriak sakonago edo gertuagotik ez aztertzea. Agian, hori eginez gero, ordea, gehiegi hurbilduko gintuen "Soylent Green"-era (Richard Fleischer, 1973). Auskalo.

# agenda

## ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 15etik 28ra

"Del AS al EURO" Erakusketa numismatikoa, Ermuako Castilla-La Mancha kultur elkartearen eskutik.

## IRTEERAK

- TURISMO BULEGOTIK:  
943-143396

- Urtarrilaren 29an: BILBO-ITSAS MUSEOA

## DEIALDIAK

- INAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA: lanak aurkezteko epea, urtarrilaren 17a. Oinarriak kultur etxean.

## IKASTAROAK

- HAURRENTZAT:

- Haurren Plastika: Urtarrilaren 19tik ekainaren 16ra, astezken

eta ostegunetan. Izenematea Forondan urtarrilaren 15a arte (943-861056)

- INTERNET - k.z.gunean 943-862866

## URTARRILA

16, igandea, 12.00etan Aita Marin, haur antzerki musikala "Ane Monna, Oskola eta Karramarroi: hamaika koloretan dantzan"

21, ostirala, 19.30etan Aita Mari aretoan Julene Azpeitia literatur lehiaketaren saribanaketa, eta jarraian: KANDIDO URANGAREN "Henry bengoa inventarium"

27, osteguna, 22:15ean: zineforum saioa "Primavera, verano, otoño, invierno y... primavera"

28, ostirala 22.00etan antzerkia, VAIVEN taldearen "Bittor Ghezak"

## OTSAILA

4tik 7ra: INAUTERIAK ZUMAIAN

5, larunbata, arratsalde, Udala Musika Bandaren eskutik, Inauterietako ekitaldi berezia gaez, helduen mozorro lehiaketa, diskoteka,...

7, astelehena, Maria eta Jose aretoan Haur antzerkia

PIRRITX ETA PORROTZ : "Patata, Patata!"

10, osteguna, 22:15ean, ZINE FORUM saioa: SUPER SIZE ME

17, osteguna, 17.30ean, haur liburutegian Ipuinkontaketa saioa

18, ostirala

LA BALDUFA TEATRO : "Catacrack"



**Ane Monna Oskola eta Karramarroi**  
antzerki musikala

**Haurrentzako antzerki musikala**

Urtarrilak 16, eguerdiko 12etan, Aita Mari aretoan.

Azken aldian Ane Monna, Oskola eta Karramarroi maskotak herrikeri herri dabilta, arrakasta handiz "Hamaika koloretan dantzan" ikuskizuna antzeten. Haur etorkinei eta inmigrazioari buruzko antzerki musikala da, umeen artean oso harrera ona izan duena. Hilaren 16an gure artean dira.



**MENDI - ONDO C.B.**  
ELEKTRIZITATEA  
Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569



**ARGIA**  
ARROPADENDA  
Itzurun, 1 Tel. 943 143224



**METRO**  
taberna  
ogitartekoak  
pintxoak  
Upela plaza, 7  
tel: 943 862620



**AUTO-ESKOLA**  
**ZUMAI'A**  
Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

*ile-apaindegia*



**Solarium**  
ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21



**taberna JUSTA**  
eguneroko bazkariak  
Erribera kalea, 20



**LEIZE**  
taberna  
Juan Belmonte, 6

*ileapaindegia*




**IZETA**  
Urumea, 6 Tel. 943 862083



# Citroën C4

## TEKNOLOGIAREN BOTEREA



### ZUMAIA MOTOR

Santiago auzoa 22 Tel/faxa 943 143 143

## BIGARREN ESKUKO LIBURU ETA DISKO



### Ostailaren 12 eta 13an Oxford aretoan

*Parte hartze irekia!!*

**Zuen liburuak, diskoak  
eta pelikulak  
Turismo Bulegoan utz  
ditzakezue urtarrilaren  
31 baino lehen**

**BALAIKE**  
Bulegoa